BIZKAIKO ALDIZKARI OFIZIALA BAO
152. zk. 2021, abuztuak 10. Asteartea 1. orr.

II. ATALA

## BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA

### Getxoko Udala

**Getxoko Udalaren eta Erakunde Autonomoen Diru-laguntzen Plan Estrategikoa 2020-2023 aldatzea.**

Getxoko Udalaren eta Erakunde Autonomoen Diru-laguntzen 2020-2023 Plan Estrategikoa aldatzeko erabakia hartu du Getxoko Udaleko Osoko Bilkurak, 2021eko uztailaren 29an egindako bilkuran. Hona hemen edukia:

1. Getxoko Udalaren eta erakunde autonomoen Diru-laguntzen Plan Estrategikoa 2020-2023 aldatzea. Honela geratuko da 4.4 ataleko taula («2020-2023 aldirako jarduera-ildo estrategikoak»):

| Eskumen arloa | Ildo estrategikoa (2020-2023) | Helburuak, ildo zehatzak (2020-2023) |
|---|---|---|
| Idazkari nagusia | 1. Instituzionaleko diru-laguntzak | 1.1 Udal talde politikoak |
| Gizarte-kohesioa | 2. Gizarte-laguntzak | 2.1. Aldizkakoak ez diren udal laguntzak<br>2.2. Gizarte Larrialdietarako Laguntzak<br>2.3. Nagusientzako laguntzak egoitzetan sartzeko<br>2.4. Alokairua ordaintzeko laguntzak, birkokatzeko<br>2.5. Familia errefuxiatuentzako laguntzak. Auzolana Programa<br>2.6. Kiroldegietan konfinatutako etxerik gabeko pertsonentzako diru-laguntzak |
| | 3. Irabazi asmorik gabeko gizarte ekintzako erakundeak | 3.1. IAGE<br>3.2. Gurutze Gorria<br>3.3. Gaude elkartea<br>3.4. Apnabi elkartea<br>3.5. Sindrome de Down fundazioa<br>3.6. Caritas<br>3.7. Sarekide elkartea<br>3.8. Bilbao Bizkaia Kutxa (BBK)<br>3.9. Bizkaiko elikagaien bankua<br>3.10. Pertsonalde<br>3.11. DYA Elkartea<br>3.12. Hijas de la Caridad elkartea<br>3.13. Sortarazi elkartea |
| | 4. Garapenerako lankidetza | 4.1. Garapenerako lankidetzarako eta ekintza humanitarioko proiektuak egiteko dirulaguntzak<br>4.2. Sahara hitzarmena<br>4.3. Euskal Fondoa proiektuak<br>4.4. SolidariUP |
| | 5. Berdintasuna | 5.1. Bekak |
| | 6. Hezkuntza | 6.1. Getxoko familientzako dirulaguntzak seme-alaben hezuntza gastu orokorretarako |
| | 7. Gazteria | 7.1. «Wanted» programaren esparruan proiektuak garatzeko laguntzak. |
| | 8. Envejecimiento Activo | 8.1. Ajane elkartea<br>8.2. Ibar Nagusien Etxea elkartea<br>8.3. Urtealaiak elkartea |
| | 9. Kulturartekotasuna eta inmigrazioa | 9.1. Getxoko Etorkinen Plataforma Federazioaren fundazioa |

eek: BAO-2021a152-(II-3130)

| Eskumen arloa | Ildo estrategikoa (2020-2023) | Helburuak, ildo zehatzak (2020-2023) |
|---|---|---|
| Gobernu Irekia eta Modernizazioa | 10. Euskera | 10.1. Euskara ikasteko dirulaguntzak baliabide ekonomiko nahikorik ez dutela frogatzen duten getxotarrentzat<br>10.2. Euskaltegietan hizkuntza gaitasuna hobetzen diharduten 6-15 urte arteko ume eta gazteentzako laguntzak<br>10.3. Euskara ikasteko dirulaguntzak udaleko zinegotzientzat eta langileentzat<br>10.4. Laguntzak gidabaimena ateratzeko azterketa euskaraz egiteagatik<br>10.5. Aisialdiko begirale eta zuzendari agiria lortzeko euskarazko ikastaroetarako dirulaguntzak<br>10.6. Dirulaguntzak errotuluak, olanak eta ibilgailu komertzialak euskaraz ipintzeko<br>10.7. Eskola-orduz kanpoko jardueretan euskara sustatzeko dirulaguntzen deialdia<br>10.8. Euskal kultura sustatzea: auzoetako Olentzeroei dirulaguntzak<br>10.9. Euskal kultura sustatzea: umeentzako San Juan suetarako dirulaguntzak<br>10.10. Euskal kultura sustatzea: kultur ekitaldiak garatzeko lokala diruz laguntzea<br>10.11. ALBE, Algortako Bertso Eskola<br>10.12. Bizarra Lepoan<br>10.13. Egizu<br>10.14. Hiruka<br>10.15. Euskaraldia |
| Kontratazioa, Ondarea eta Etxebizitza | 11. Ondare historiko-artistikoa babestea eta artatzea | 11.1. «Portuzarra» Algortako Portu Zaharreko bizilagunen elkartea |
| | 12. Etxebizitza | 12.1. Gazteen alogera sustatzea<br>12.2. Bizitegi-eraikinetarako birgaikuntza- eta irisgarritasun-laguntzak<br>12.3. Hutsik dauden etxebizitzak merkaturatzea |
| Sustapen ekonomikoa | 13. Enpleguaren sustapena | 13.1. Lanbide diru-laguntzak |
| | 14. Sustapen ekonomikoa | 14.1. AGE Merkataritza eta Ostalaritza Elkarteak<br>14.2. IAGE Eremu estrategikoen elkarteak<br>14.3. Enpresentzako diru-laguntzak. Dinamizazio-ekintzak<br>14.4. Turismo-enpresentzako diru-laguntzak. Jarduera erregularrak<br>14.5. Turismo-enpresentzako diru-laguntzak. Egokitzapen teknologikoa<br>14.6. IAGE Merkataritza eta Ostalaritza Elkarteak. Funtzionamendua<br>14.7. IAGE Merkataritza eta Ostalaritza Elkarteak. Asoziazionismoa sustatzea.<br>14.8. Serifalaris<br>14.9. Estrategiko proiektuak. Getxo Moda<br>14.10. Estrategiko proiektuak<br>14.11. Bekak eta sariak<br>14.12. Aparteko laguntzak egoera berezietan establezimenduak eta enpleguak mantentzeko<br>14.13. Getxo Bono diru-laguntzak apartekoak |
| Azpiegiturak, obrak eta zerbitzuak. Ingurumena | 15. Ingurumena | 15.1. IAGE |
| OAL Getxo Kirolak | 16. Kirolaren sustapena | 16.1. Kirol kublei diru-laguntzak (Oinarrizko kirolaren garapena)<br>16.2. Kirol kublei diru-laguntzak (Lehiaketako kirol jarduerak eta errendimenduko kirolariak)<br>16.3. Kirol kublei diru-laguntzak (Gertaerabidezko jarduerak)<br>16.4. Kirol kublei diru-laguntzak (Ekitaldeak kudeatzea)<br>16.5. Kirol kublei diru-laguntzak (Bertako kirolaren sustapena)<br>16.6. Kirol kublei diru-laguntzak (Muturreko kiroleko jardueretan)<br>16.7. Kirol kublei diru-laguntzak (Herri jaietako kirol jarduerak)<br>16.8. Kirol kublei diru-laguntzak (Getxo markako espazioak)<br>16.9. Kirol kublei diru-laguntzak (Kirol proiektu estrategikoak)<br>16.10. Kirol kublei diru-laguntzak (Urezko kiroletako materialean inbertsioa) |

eek: BAO-2021a152-(II-3130)

| Eskumen arloa | Ildo estrategikoa (2020-2023) | Helburuak, ildo zehatzak (2020-2023) |
|---|---|---|
| OAL Getxo Kirolak | 16. Kirolaren sustapena | 16.11. Kirol kublei diru-laguntzak (Oroitzapenezko ekitaldiak)<br>16.12. Kirol kublei diru-laguntzak (Behin behineko Nazioarteko ekitaldi ofizialak Eventos internacionales oficiales de carácter ocasional)<br>16.13. Kirol kublei diru-laguntzak (Emakumezko kirolaren Sustatzea) |
| OAL Kultur Etxea | 17. Kultur sustapena | 17.1. IAGE<br>17.2. Sariak eta bekak<br>17.3. Konpentsazio ekonomikoak<br>17.4. Udalerriko jai eta ekitaldi soziokultural esanguratsuak antolatzeko ematen diren laguntzak<br>17.5. Kultura eta sormen-sektore amateur, asoziatibo eta profesionalarentzako laguntzak<br>17.6. Utopian antzerki eskola<br>17.7. Aldai patronatua<br>17.8. Begihandi Kultur Elkartea<br>17.9. Udal kultur instalazioetan jarduerak sustatzeko dirulaguntzak |
| OAL Musika Eskola | 18. Musika kultura sustatzea | 18.1 Bekak<br>18.2 Proszenia Beka |

Proposamen honekin batera doa 2020/2023 Diru-laguntzen Plan Estrategikoaren Fitxen A3 eranskin berria.

2. Akordio hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean, Diru-laguntzen datu-base nazionalean eta udalaren webgunean argitaratzeko agintzea.

3. Akordio hau udal arlo guztiei eta erakunde autonomoei jakinaraztea.

Getxon, 2021eko abuztuaren 2an.—Idazkaritza Nagusia eta Herritarren Segurtasuneko Zinegotzia, Keltse Eiguren Alberdi

eek: BAO-2021a152-(II-3130)

A3 ERANSKINA

**DIRU-LAGUNTZAK EMATEKO PLAN ESTRATEGIKOA 2020-2023 FITXAK**

ARLO ESKUMENDUNA

**IDAZKARI NAGUSIA**

**1. Ildo Estrategikoa.—*Izaera instituzionaleko diru-laguntzak***

*Helburu estrategikoa*

Talde politikoei eta erakunde-ordezkaritzari egin beharreko transferentzia arrunten gaian legea betetzea.

*Berariazko helburua*

Talde politikoen diru-laguntzak.

*Berariazko helburuarekin lortzea nahi den emaitzak*

Gaian indarrean dagoen legeria betetzea. TOALaren 73.3 artikulua eta osoko bilkuraren erabakia.

*Berariazko helburuaren emaitzak lortzeko epea*

Urterokoa.

*Lortzea nahi den emaitzak norainokoak diren neurtzeko modua (adierazlea)*

Ratio-adierazleak: gaian indarrean dagoen legeria betetzea.

*Finantzatzeko iturriak*

Udal aurrekontuan ezarritakoa.

*Kostu ekonomikoak*

Aurreikusitako kostuak ildo eta ekitaldi bakoitzean bideratutako aurrekontuko diru erabilgarriaren gehieneko mugaraino izango dira.

*Diru-laguntza emateko prozedura*

Ildo estrategiko hau gauzatzeko emakida-prozedura osoko bilkuraren erabakiaren eta dagozkion ebazpenen bidez izango da.

*Ekintza-plana*

Ildo estrategiko hau gauzatzeko jarduera-plana talde politikoen parte-hartzearekin bat etorriz egingo da.

ARLO ESKUMENDUNA

**GIZARTE-KOHESIOA**

**2. ildo estrategikoa.—*Gizarte-laguntzak***

*Helburu estrategikoa*

Getxotarren eta Getxoko familien premia sozialez arduratzea.

*Helburu zehatzak*

2.1. Aldizkakoak ez diren udal laguntzak.
2.2. Gizarte Larrialdietarako Laguntzak.
2.3. Nagusientzako laguntzak egoitzetan sartzeko.
2.4. Alokairua ordaintzeko laguntzak, birkokatzeko.
2.5. Familia errefuxiatuentzako laguntzak. Auzolana Programa.
2.6. Kiroldegietan konfinatutako etxerik gabeko pertsonentzako diru-laguntzak.

eek: BAO-2021a152-(II-3130)

*Helburu zehatz bakoitzean lortu nahi diren efektuak*

2.1. Gizarte bazterketa prebenitzeko, ekiditeko edo arintzeko beharrezkoak diren gastu zehatzak ordaintzen laguntzea, apartekoak, baliabide nahiko ez duten udalerriko biztanleei.

Laguntzak udalez gaindiko eremuan indarrean dagoen legedian aurreikusitako prestazio eta gizarte-baliabide mota guztien subsidiarioak dira eta, kasuan kasu, osagarriak (adibidez: Gizarte Larrialdietarako Laguntzak).

2.2. Gizarte bazterketa prebenitzeko, ekiditeko edo arintzeko beharrezkoak diren gastu zehatzak ordaintzen laguntzea, arruntak edo apartekoak, baliabide nahiko ez duten udalerriko biztanleei.

Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak bermatzeko 18/2008 Legeak eta horren garapenak arautzen dituzte.

2.3. Egoitza batean sartzea baliabide egoki eta ezinbestekotzat balioetsi zaien nagusiei sarrera finantzatzea, baldin eta ez badute Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemako beste egoitza-zerbitzu edota prestaziorako sarbiderik.

2.4. Udal ekipamenduak utzi behar izan dituztenei alokairua ordaintzen laguntzea.

2.5. Estatuko Harrera eta Gizarteratze Sistemak babesten dituen familiei etxebizitza bat alokatzeko eta mantenua emateko berariazko gastuei aurre egiteko laguntzak.

2.6. Konfinamendu-beharrean ondorioz gizarte-bazterketako egoeran edo arriskuan dauden pertsonen kiroldegietakoaldi baterako ostatua finantzatzea.

2.3, 2.4, 2.5 eta 2.6 ildoetako laguntzak subsidiarioak dira, aldizkakoak ez diren udal laguntzak udalez gaindiko eremuan indarrean dagoen legedian xedatutako prestazio eta gizarte-baliabide mota guztietakoak.

*Helburu zehatz bakoitza lortzeko epea*

Helburu zehatz guztiak dirulaguntza ematen den urte naturalean garatzen dira. Aurreikusita dago denboran mantentzea, erantzuten dituzten premia sozialek iraun bitartean.

*Lortu nahi den efektua lortu den neurtzeko modua (helburu zehatz bakoitzeko adierazlea)*

Helburu zehatz guztietarako adierazle berak erabiliko dira, honako hauek hain zuzen:

— Batez besteko zenbatekoa espediente bakoitzeko: Emandako euroak guztira / Espediente-kopurua.
— Estaldura: Emandako dirulaguntza kopurua / Eskatutako dirulaguntza kopurua.

*Finantzaketa iturriak*

Udal aurrekontua, aurrekontuko aplikazioen arabera.

Kanpo finantzaketako beste iturri batzuk:

— Gizarte-larrialdiko laguntzek (2.2 helburu espezifikoa) eta familia errefuxiatuentzako laguntzek (2.5 helburu espezifikoa) Eusko Jaurlaritzaren finantzaketa dute.

*Kostu ekonomikoak*

Aurreikusitako kostuak bideratutako aurrekontuko diru erabilgarri guztia erabili artekoak izango dira.

*Emateko prozedura*

Ildo estrategiko hau gauzatzeko emakida egiteko prozedura zuzenekoa izango da, interes publiko, sozial, ekonomiko eta humanitarioko arrazoiak direla eta.

*Ekintza plana*

Dirulaguntzen ildo zehatzetako bakoitzerako deialdi edo ebazpen egokiak eginez gauzatuko da ildo estrategiko hau gauzatzeko jarduketa plana.

eek: BAO-2021a152-(II-3130)

**3. ildo estrategikoa.—*Irabazi asmorik gabeko gizarte ekintzako erakundeak***

*Helburu estrategikoa*

Getxotarren premia sozialez arduratzea, gizarte kohesio arloarekin lankidetzan diharduten gizarte erakundeei lagunduz.

*Helburu zehatzak*

3.1. Irabazi-asmorik gabeko erakundeak.

3.2. Gurutze Gorriaren aldeko laguntza izenduna.

3.3. Gaude elkartearen aldeko laguntza izenduna.

3.4. Apnabi elkartearen aldeko laguntza izenduna.

3.5. Síndrome de Down fundazioaren aldeko laguntza izenduna.

3.6. Caritas elkartearen aldeko laguntza izenduna.

3.7. Sarekide elkartearen aldeko laguntza izenduna.

3.8. Bilbao Bizkaia Kutxa (BBK) entitatearen aldeko laguntza izenduna.

3.9. Bizkaiko elikagaien bankuaelkartearen aldeko laguntza izenduna.

3.10. Pertsonalderen aldeko laguntza izenduna.

3.11. DYA elkartearen aldeko laguntza izenduna.

3.12. Hijas de la Caridad elkartearen aldeko laguntza izenduna.

3.13. Sortarazi elkartearen aldeko laguntza izenduna.

*Helburu zehatz bakoitzean lortu nahi diren efektuak*

3.1. Getxoko udalerrian jarduerak egiten dituzten gizarte-erakundeen jarduera eta proiektuak sustatzea, Gizarte Cohesioaren arloan.

3.2. Pobrezia- eta bazterketa-arriskuan dauden pertsonei behar dituzten baliabideak ematea, bizitza ekonomikoan, sozialean eta kulturalean parte har dezaten.

3.3. Desgaitasun intelektuala duten pertsonentzako aisialdiko eta parte-hartze sozialeko jarduerak sustatzea.

3.4. Espektu autistaren transtornoak dituzten pertsonei eta haien senideei laguntza, aisia eta denbora libreko jarduerak egitea sustatzea.

3.5. Urritasun psikikoak dituzten pertsonei zuzendutako aisialdiko eta gizarte-partaidetzako jarduerak sustatzea, bai eta nahasmenduak eta adimen-urritasunak dituzten pertsonen senideei laguntzeko jarduerak ere.

3.6. Egoera ahulean dauden familiei laguntza integrala ematea.

3.7. Boluntarioen lana, prestakuntza eta topaketa aintzatesten laguntzen duten jarduerak sustatzea.

3.8. Gizarte-kohesioaren arloan jarduerak egiteko dinamizazio-espazio bat eskaintzea.

3.9. Gizarte-bazterketako egoeran dauden pertsonentzako oinarrizko elikagaiak biltzeko, biltegiratzeko eta banatzeko behar diren baliabideak ematea.

3.10. Udal-programa eta -zerbitzuen onuradunei laguntza integrala emateko jarduerak sustatzea, Gizarte Kohesioaren arlotik proposatutako esku-hartze ibilbideekin koordinatuta, pertsona horien kapital soziala handitzeko, eta jarduera horien euskarri izango den boluntariotzako tokiko sarea eta sare komunitarioa gaitzeko eta laguntzeko.

3.11. Osasun- eta gizarte-egoera ahulean dauden pertsonei laguntzeko jardueretan laguntzea.

3.12. Jantoki- eta higiene-espazio bat ematea gizarte-bazterketako egoeran dauden pertsonei.

3.13. Bereziki egoera ahulean dauden pertsonei, familiei eta/edo taldeei laguntza ematea.

eek: BAO-2021a152-(II-3130)

*Helburu zehatz bakoitza lortzeko epea*

Helburu zehatz guztiak dirulaguntza ematen den urte naturalean garatzen dira.

*Lortu nahi den efektua lortu den neurtzeko modua (helburu zehatz bakoitzeko adierazlea)*

3.1. Irabazi asmorik gabeko erakundeak:

— Zenbateko osotik emandako ehunekoa: guztira emandako euroak x 100 / Aurrekontuko euroak, guztira.

— Espediente eta ildoaren arabera emandako batez bestekoa: ildo bakoitzeko emandakoa, guztira / Ildoaren arabera espediente-zenbakia.

— Estaldura: emandako laguntza kopurua x 100 / Laguntza-eskaera kopurua

3.2-3.13. Dirulaguntza izendunak eta zuzenak:

— Kostua / plaza: guztira emandako dirua / Parte hartzaile kopurua.

— Urtean urteko bilakaera:

- Urtean egindako jarduera kopurua / Aurreko urtean egindako jarduera kopurua x 100.
- Urtean egindako jardueretan parte hartu duen jende kopurua / Aurreko urtean egindako jardueretan parte hartu duen jende kopurua x 100.
- Aurten guztira emandako dirua / Aurreko urterako guztira emandako dirua x 100.

3.8.

— Zenbateko osotik emandako ehunekoa: Guztira emandako euroak x 100 / Aurrekontuko euroak, guztira.

— Kostua / plaza: Proiektuaren kostuaren euroak, guztira – guztira emandako euroak / Proiektuan aurreikusitako pertsonen kopurua.

*Finantzaketa iturriak*

Udal aurrekontua, aurrekontuko aplikazioen arabera.

*Kostu ekonomikoak*

Aurreikusitako kostuak bideratutako aurrekontuko diru erabilgarri guztia erabili artekoak izango dira.

*Emateko prozedura*

Ildo estrategiko hau gauzatzeko emakida-prozedura norgehiagokaren bidez egingo da 3.1 artikuluan, eta gainerakoetan, aurrekontuan izen izendunez agertzen diren erakundeekin egindako hitzarmenen edo ebazpenen bidez

*Ekintza plana*

Dirulaguntzen ildo zehatzetako bakoitzerako deialdi edo lankidetza hitzarmen egokiak eginez gauzatuko da ildo estrategiko hau gauzatzeko jarduketa plana.

**4. ildo estrategikoa.—*Garapenerako lankidetza***

*Helburu estrategikoa*

%0,7 lortzeko bidean aurrera egiteko konpromisoa, herrialde txirotuekin garapenerako lankidetza programetara bideratutako aurrekontu esleipen modura.

*Helburu zehatzak*

4.1. Garapeneko lankidetzarako eta Ekintza Humanitarioko proiektuak egiteko diru-laguntzak.

4.2. Sahara hitzarmena.

4.3. Euskal Fondoa proiektuak.

4.4. SolidaridUP.

eek: BAO-2021a152-(II-3130)

*Helburu zehatz bakoitzean lortu nahi diren efektuak*

4.1. Herri txirotuekiko lankidetzan laguntzea, GKE-ekiko koordinazio eta lankidetza harremanak sustatzea.

4.2. Tindoufeko kanpalekuetan dauden saharar errefuxiatuak babestea.

4.3. Garapenerako lankidetza, herritarren sentsibilizazioa gizartea eraldatzeko eta erakundeen koordinazioa nazioarteko lankidetza deszentralizatuaren alorrean.

4.4. Garapenerako lankidetza sustatzea, elkartasun sarea sortuz udalean hainbat ekimen solidario aurrera ateratzeko eta horrela Lankidetzara hurbilketa egitea

*Helburu zehatz bakoitza lortzeko epea*

Sine die.

*Lortu nahi den efektua lortu den neurtzeko modua (helburu zehatz bakoitzeko adierazlea)*

4.1.

a) Hegoaldean proiektuak egiteko bideratutako proiektuen kopurua.

b) Emakumea eta Garapena gaietara bideratutako proiektuen kopurua.

c) Ekintza humanitarioko proiektuen kopurua.

d) Harreran hartutako adingabeen kopurua.

4.2.

a) Udan harrera egindako adingabeen kopurua.

b) Kanpamentuetara bidalitako oinarrizko elikagaien kg.

c) Onuradunen kopurua.

4.3.

a) Hegoaldean gauzatutako proiektuen kopurua.

b) Elkarrekin egindako sentsibilizazio ekintzen kopurua.

4.4.

a) Parte hartzen duten GKEn kopurua.

b) Getxon parte hartzen duten komertzioen kopurua.

c) Hirugarren sektoreko erakundeen kopurua

d) Ekimen solidarioen kopurua

*Finantzaketa iturriak*

Udal aurrekontua, aurrekontuko aplikazioen arabera

*Kostu ekonomikoak*

4.1. Lankidetza proiektuak: 335.000 euro.

4.2. Sahara hitzarmena: 36.000 euro.

4.3. Euskal Fondoa: 51.000 euro.

4.4. SolidaridUP hitzarmena: 25.000 euro.

*Laguntza emateko prozedura*

Ildo estrategiko hau gauzatzeko emakida-prozedura norgehiagokaren bidez egingo da 4.1 puntuan, eta, gainerakoetan aurrekontuan izendun gisa agertzen diren erakundeekin egindako hitzarmenen edo ebazpenen bidez.

*Ekintza plana*

Dirulaguntzen ildo zehatzetako bakoitzerako deialdi edo lankidetza hitzarmen egokiak eginez gauzatuko da ildo estrategiko hau gauzatzeko jarduketa plana.

eek: BAO-2021a152-(II-3130)

**5. ildo estrategikoa.—*Berdintasuna***

*Helburu estrategikoa*

Getxoko emakumeek betetzen duten paperari eta udalerriaren historiari egiten dioten ekarpenari buruzko informazioa lortzea. Getxoko emakumeen historia eta bizitza kultural, sozial, ekonomiko eta/edo politikoari egiten dioten ekarpena berreskuratzea eta ezagutaraztea

*Helburu zehatzak*

— Getxoko historian emakumeek izan duten rolari buruzko datu berriak lortzea, edo dagoeneko ezagunak diren datuetan sakontzea.
— Ikerketaren emaitza argitaratzea eta zabaltzea.

*Helburu zehatz bakoitzean lortu nahi diren efektuak*

5.1. Emakumeek Getxoko historian bete duten paperari buruzko datu berriak eskuratzea edo dagoeneko ezagutzen ditugunetan sakontzea.

Ikerketaren emaitza argitaratzea eta hedatzea.

*Helburu zehatz bakoitza lortzeko epea*

5.1. Ikerketarako, urtebete, deialdia argitaratzen denetik. Argitaratzeko, urtebete, ikerketa amaitzen denetik.

*Lortu nahi den efektua lortu den neurtzeko modua (helburu zehatz bakoitzeko adierazlea)*

5.1. Bekari bideratutako aurrekontua, aurkeztutako proiektu kopurua, parte hartzaileak sexuaren arabera banatuta.

Argitalpenaren kostua, argitaratutako ale kopurua, bidalketa kopurua, egindako aurkezpenak, aurkezpenetako parte hartzaile kopurua.

*Finantzaketa iturriak*

Udal aurrekontua, aurrekontuko aplikazioen arabera.

Kanpo finantzaketako beste iturri batzuk.

*Kostu ekonomikoak*

Aurreikusitako kostuak bideratutako aurrekontuko diru erabilgarri guztia erabili artekoak izango dira.

*Emateko prozedura*

Deialdietan argitaratzen diren balorazio irizpideetan oinarrituta.

*Ekintza plana*

5.1. Deialdia egitea, epaimahaia osatzeko dekretua, proiektuen balorazioa, ebazpena, eta argitaratzeko, adjudikatzeko eta produktua zabaltzeko proposamenen eskaera.

**6. ildo estrategikoa.—*Hezkuntza***

*Helburu estrategikoa*

Familien hezkuntza-lana babestea

*Helburu zehatzak*

6.1. Getxoko familientzako dirulaguntzak seme-alaben hezkuntza gastu orokorretarako.

*Helburu zehatz bakoitzean lortu nahi diren efektuak*

6.1. Eskolatutako seme-alaben hezkuntzaren ondorioz familiek dituzten gastu orokorretan laguntzea.

eek: BAO-2021a152-(II-3130)

*Helburu zehatz bakoitza lortzeko epea*

Urtekoa.

*Lortu nahi den efektua lortu den neurtzeko modua (helburu zehatz bakoitzeko adierazlea)*

6.1.

— Batez besteko zenbatekoa espediente bakoitzeko: Emandako euroak guztira / Espediente-kopurua.

— Estaldura: Emandako dirulaguntza kopurua / Eskatutako dirulaguntza kopurua.

*Finantzaketa iturriak*

Udal aurrekontua, aurrekontuko aplikazioen arabera.

*Kostu ekonomikoak*

Aurreikusitako kostuak bideratutako aurrekontuko diru erabilgarri guztia erabili artekoak izango dira.

*Emateko prozedura*

Ildo estrategiko hau gauzatzeko emakidaren prozedura norgehiagokan egingo da.

*Ekintza plana*

Ildo estrategiko hau gauzatzeko jarduketa plana deialdi egokiak eginez egingo da.

**7. ildo estrategikoa.—*Gazteria***

*Helburu estrategikoa*

Gazteen herritartasun aktiboa eta helduarora igarotzea sustatzea.

*Helburu zehatzak*

7.1. «Wanted» programaren esparruan proiektuak garatzeko laguntzak.

*Helburu zehatz bakoitzean lortu nahi diren efektuak*

7.1. «Wanted» programaren esparruan proiektuak garatzeko laguntzak ematea. (1) Gazteek tokiko bizitzan parte hartzea sustatzea, (2) gizarte, kultur, arte eta abarreko izaeretako proiektuen garapenean, dirua irabazteko asmoarekin edo gabe, laguntzea, eta (3) autoenplegua sustatzea.

*Helburu zehatz bakoitza lortzeko epea*

7.1. «Wanted» programaren esparruan proiektuak garatzeko laguntzak. Emakidaren urtearen ondokoa.

*Lortu nahi den efektua lortu den neurtzeko modua (helburu zehatz bakoitzeko adierazlea)*

7.1. «Wanted» programaren esparruan proiektuak garatzeko laguntzak. (1) Eskaera kopurua, (2) saritutako proiektuen kopurua eta (3) arrakasta izan duten proiektuen kopurua.

*Finantzaketa iturriak*

Udal aurrekontua, aurrekontuko aplikazioen arabera.

*Kostu ekonomikoak*

Aurreikusitako kostuak bideratutako aurrekontuko diru erabilgarri guztia erabili artekoak izango dira.

*Emakida egiteko prozedura*

Ildo estrategiko hau gauzatzeko emakida-prozedura norgehiagokan egingo da.

eek: BAO-2021a152-(II-3130)

*Ekintza plana*

Lerro estrategiko hau gauzatzeko jarduketa-plana dagokion deialdia eginez egingo da.

**8. ildo estrategikoa.—*Zahartze aktiboa***

Helburu estrategikoa: parte-hartzea eta zahartze aktiboa sustatzea adinekoengan.

*Helburu zehatzak*

8.1. Ajane elkartearen aldeko laguntza izenduna.

8.2. Ibar Nagusien Etxea elkartearen aldeko laguntza izenduna.

8.3. Urtealaiak elkartearen aldeko laguntza izenduna.

*Helburu zehatz bakoitzean lortu nahi diren efektuak*

8.1. Algortako eremuan bizi diren 60 urtetik gorako pertsonei zuzendutako aisialdiko eta parte-hartze sozialeko jarduerak sustatzea.

8.2. Erromo-Areetako eremuan bizi diren 60 urtetik gorako pertsonei zuzendutako aisialdiko eta parte-hartze sozialeko jarduerak sustatzea.

8.3. Andra Mariko eremuan bizi diren 60 urtetik gorako pertsonei zuzendutako aisialdiko eta parte-hartze sozialeko jarduerak sustatzea.

*Helburu zehatz bakoitza lortzeko epea*

Helburu zehatz guztiak dirulaguntza ematen den urte naturalean garatzen dira.

*Lortu nahi den efektua lortu den neurtzeko modua (helburu zehatz bakoitzeko adierazlea)*

— Kostua / plaza: Guztira emandako dirua / Parte hartzaile kopurua.
— Urtean urteko bilakaera: urtean egindako jardueretan parte hartu duen jende kopurua / Aurreko urtean egindako jardueretan parte hartu duen jende kopurua x 100.
— Aurten guztira emandako dirua / Aurreko urterako guztira emandako dirua x 100.

*Finantzaketa iturriak*

Udal aurrekontua, aurrekontuko aplikazioen arabera.

*Kostu ekonomikoak*

Aurreikusitako kostuak bideratutako aurrekontuko diru erabilgarri guztia erabili artekoak izango dira.

*Emateko prozedura*

Lerro estrategiko hau gauzatzeko emakida-prozedura aurrekontuan izendapenez agertzen diren erakundeekin egindako hitzarmenen edo ebazpenen bidez egingo da.

*Ekintza plana*

Ildo estrategiko hau gauzatzeko jarduketa plana deialdi, lankidetza-hitzarmen espezifiko edo ebazpen egokiak eginez egingo da.

**9. ildo estrategikoa.—*Kulturaterkotasuna eta inmigrazioa***

*Helburu estrategikoa*

Aniztasunean oinarritutako bizikidetzaren, kulturartekotasunaren sustapenaren eta hiriko elkarteen parte-hartzearen bidez, Gizarte-kohesioa sustatzea, bai eta ekintzak egokitzea, etorri berri direnentzat ez ezik, Getxoko herritar guztientzat ere izan daitezen.

*Helburu zehatzak*

9.1. Getxoko Etorkinen Plataforma Federazioaren fundazioaren aldeko laguntza izenduna.

eek: BAO-2021a152-(II-3130)

*Helburu zehatz bakoitzean lortu nahi diren efektuak*

9.1. Federazioa osatzen duten edo osatuko luketen erakundeen laguntza eta aholkularitzarekin zerikusia duten ekintzak egin daitezen sustatzea, bai eta etorkin atzerritarren harrera eta integrazioa bultzatzea ere, Migrazioen Harrera eta Arretarako Bulegoa kudeatuz

*Helburu zehatz bakoitza lortzeko epea*

Helburu zehatz guztiak dirulaguntza ematen den urte naturalean garatzen dira.

*Lortu nahi den efektua lortu den neurtzeko modua (helburu zehatz bakoitzeko adierazlea)*

— Kostua / Plaza: guztira emandako dirua / Parte hartzaile kopurua.
— Urtean urteko bilakaera: urtean egindako jardueretan parte hartu duen jende kopurua / Aurreko urtean egindako jardueretan parte hartu duen jende kopurua x 100.
— Aurten guztira emandako dirua / Aurreko urterako guztira emandako dirua x 100.

*Finantzaketa iturriak*

Udal aurrekontua, aurrekontuko aplikazioen arabera.

*Kostu ekonomikoak*

Aurreikusitako kostuak bideratutako aurrekontuko diru erabilgarri guztia erabili artekoak izango dira.

*Emateko prozedura*

Lerro estrategiko hau gauzatzeko emakida-prozedura aurrekontuan izendapenez agertzen diren erakundeekin egindako hitzarmenen edo ebazpenen bidez egingo da.

*Ekintza plana*

Ildo estrategiko hau gauzatzeko jarduketa-plana lankidetza-hitzarmen baten bidez egingo da

ARLO ESKUMENDUNA

**GOBERNU IREKIA ETA MODERNIZAZIOA**

**10. ildo estrategikoa.—*Euskara***

*Helburu estrategikoa*

Euskararen ezagutza eta erabilera sustatzea

*Helburu zehatzak*

10.1. Euskara ikasteko dirulaguntzak baliabide ekonomiko nahikorik ez dutela frogatzen duten getxotarrentzat.

10.2. Euskaltegietan hizkuntza gaitasuna hobetzen diharduten 6-15 urte arteko ume eta gazteentzako laguntzak.

10.3. Euskara ikasteko dirulaguntzak udaleko zinegotzientzat eta langileentzat.

10.4. Laguntzak gidabaimena ateratzeko azterketa euskaraz egiteagatik.

10.5. Aisialdiko begirale eta zuzendari agiria lortzeko euskarazko ikastaroetarako dirulaguntzak.

10.6. Dirulaguntzak errotuluak, olanak eta ibilgailu komertzialak euskaraz ipintzeko.

10.7. Eskola-orduz kanpoko jardueretan euskara sustatzeko dirulaguntzen deialdia.

10.8. Euskal kultura sustatzea: auzoetako Olentzeroei dirulaguntzak.

10.9. Euskal kultura sustatzea: umeentzako San Juan suetarako dirulaguntzak.

10.10. Euskal kultura sustatzea: kultur ekitaldiak garatzeko lokala diruz laguntzea.

10.11. ALBE, Algortako Bertso Eskolari dirulaguntza.

eek: BAO-2021a152-(II-3130)

10.12. Bizarra Lepoan Euskara Elkarteari dirulaguntza.

10.13. Egizu Elkarteari dirulaguntza.

10.14. Hiruka aldizkariari dirulaguntza.

10.15. Euskaraldia.

*Helburu zehatz bakoitzean lortu nahi diren efektuak*

10.1. Herritarrek euskararen jabekuntzan aurrera egitea eta erabilera sozialerako bideak urratzea.

10.2. Euskaltegien bidez euskara ikasten diharduten eta horretarako baliabide ekonomiko nahikorik ez duten 6-15 urta arteko ume eta gazteen familiak laguntzea.

10.3. Euskara laneko eta zerbitzuko Hizkuntza bezala sustatzea.

10.4. Ikasketak euskaraz egin izan dituzten gazteei laguntzea eta euskararentzat esparruak irabaztea.

10.5. Herrian aisialdia eskaintzen duten agentean euskaraz formatutakoak izatea.

10.6. Euskarazko olanak eta erakusleihoak ugaritzea.

10.7. Ikastetxetik kanpo, herriko ume eta gazteen artean euskararen erabilera sustatzea.

10.8. Urtero auzoetan antolatzen dituzten Olentzeroak laguntzea.

10.9. San Juanetarako ohitura mantentzea eta bere ezagutza indartzea.

10.10. Euskarazko kultur kontsumoa sustatzea eta kultur adierazpen txikiei espazioak bermatzea.

10.11. Euskarazko kultur kontsumoa eta gazteen euskarazko aisialdia indartzea; eta horrekin batera bertsolaritza indartzea herrian.

10.12. Herri mailan euskararen inguruko sareak ehuntzea eta erabilerarako aukerak biderkatzea.

10.13. Euskara helduaroan ezagutu dutenak edo euskarazko etxeko girorik ez dutenei erabilerarako aukerak ematea.

10.14. Euskararen kontsumoa, ezagutza eta praktika indartzeko bitarteko egokia da herriko euskarazko komunikabide bakarrari laguntzea.

10.15. Euskararen erabilera sustatzea.

*Helburu zehatz bakoitza lortzeko epea*

Urterokoa.

*Lortu nahi den efektua lortu den neurtzeko modua (helburu zehatz bakoitzeko adierazlea)*

10.1. Izandako eskaera kopurua eta erroldako datuetan euskararen ezagutzari buruzko datuak.

10.2. Izandako eskaera kopurua eta erroldako datuetan euskararen ezagutzari buruzko datuak.

10.3. Izandako eskaera kopurua.

10.4. Izandako eskaera kopurua eta ekimenenan batutako instituzio kopurua.

10.5. Euskarazko eskaintza herriko aisialdian.

10.6. Izandako eskaera kopurua.

10.7. Izandako eskaera kopurua.

10.8. Olentzeroen antolaketa bermatzea.

10.9. Suak egiten direla bermatzea.

10.10. Garatutako ekimen kopurua.

10.11. Aurkeztutako aurrekontua/emandako dirulaguntza; jardueren burutze-maila eta asebetetzea jasotzen duen memoria.

eek: BAO-2021a152-(II-3130)

10.12. Aurkeztutako aurrekontua/emandako dirulaguntza; jardueren burutze-maila eta asebetetzea jasotzen duen memoria.

10.13. Aurkeztutako aurrekontua/emandako dirulaguntza; jardueren burutze-maila eta asebetetzea jasotzen duen memoria.

10.14. Aurkeztutako aurrekontua/emandako dirulaguntza; jardueren burutze-maila eta asebetetzea jasotzen duen memoria.

10.15. Ekimenean parte hartuko duten pertsonen kopurua.

*Finantzaketa iturriak*

Udalaren aurrekontua, aurrekontuaren aplikazioari jarraituz.

*Kostu ekonomikoak*

Aurreikusitako kostuak, gehienez, aurrekontuan horretara bideratutako baliabideak izango dira.

*Emakida egiteko prozedura*

10.1. Euskaltegian euskara ikasten ari diren 16 urteko getxoztarrei asistentzia eta diru-baliabide nahikorik ez dutela ziurtatu ostean.

10.2. Euskaltegian euskara ikasten ari diren 6-15 urte arteko getxoztarrei asistentzia eta familiaren diru-baliabide nahikorik eza ziurtatu ostean.

10.3. Urteko diru-laguntza deialdia.

10.4. Gidabaimeneko azterketa teorikoa euskaraz atera duten gazteen arteko deialdia.

10.5. Aisialdi monitore titulua euskaraz atera duten getxoztarren arteko deialdia.

10.6. Aldaketa proposamena aztertu ondoren eta egitasmoaren proiektua ikuskatu ondoren, herriko komertzioen artean deialdia eginda.

10.7. Guraso elkarteek eta ikastetxeek eskola jarduera normaletik kanpo antolatzen dituztenak laguntzea.

10.8. Auzo bakoitzean Olentzeroa antolatzeko prest dauden kultur elkarteen artean egindako deialdia.

10.9. Umeentzako San Juan suak antolatzeko prest dauden kultur elkarteen artean egindako deialdia.

10.10. Baldintza jakin batzuek betetzen dituzten herriko lokal edo espazio eszenikoen artean egindako deialdia.

10.11. ALBE elkartearekin hitzarmena (izenduna).

10.12. Bizarra Lepoan euskara elkartearekin sinatutako hitzarmena (izenduna).

10.13. Egizu euskara elkartearekin sinatutako hitzarmena (izenduna).

10.14. Hirukarekin sinatutako hitzarmena (izenduna).

10.15. Bizarra Lepoan euskara elkartearekin sinatutako hitzarmena (izenduna).

*Ekintza plana*

Ildo bakoitzari dagozkion deialdien, hitzarmenen edota ebazpenen bidez.

ESKUMEN-ARLOA

**KONTRATAZIOA, ONDAREA ETA ETXEBIZITZA**

**11. zenbakiko ildo estrategikoa.—*Ondare historiko-artistikoa babestea eta artatzea***

*Helburu Estrategikoa*

Getxoko ondare historiko-artistikoa kontserbatzen eta hobeto babesten laguntzea.

*Berariazko helburuak*

«Portuzarra» Algortako Portu Zaharreko bizilagunen elkartearekin lankidetzan aritzea, Algortako Portu Zaharreko Monumentu Multzoa osatzen duten ondasunak kontserbatzeko babes-jarduketa egokiak garatzeko.

eek: BAO-2021a152-(II-3130)

*Berariazko helburuarekin lortu nahi diren ondorioak*

Algortako Portu Zaharreko Monumentu Multzoa osatzen duen eraikuntzaren eta bertan integratutako elementuen kalitatea hobetzea, baita horien balioa nabarmentzea ere.

*Berariazko helburua lortzeko epea*

Urterokoa.

*Lortu nahi den ondorioa lortzen dela neurtzeko era (adierazlea berariazko helbururako)*

Aurkeztutako aurrekontua/emandako kopurua. Zenbat higiezinetan esku hartu den.

*Finantzaketa-iturriak*

